BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3598

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 22koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Polo para la Innovación en Envejecimiento» fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Polo para la Innovación en Envejecimiento» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2012ko abuztuaren 2an, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistro Orokorrean sartu zen, telematikoki, 2012ko uztailaren 25ean Euskal Herriko Notarioen Elkargoko Miguel Gutierrez y García de los Ríos notarioak egiletsitako eskritura publikoa (552 protokolo-zenbakia). Eskritura horretan honako eskaera jasotzen zen: Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan «Fundación Polo para la Innovación en Envejecimiento» fundazioaren eratzea inskribatzeko eskaera. Fundazio hori honako hauek sortu zuten: Grupo Matía, Fundación Tecnalia Reseca & Innovation, Euskaltel, S.A., Angel Iglesias, S.A., Policlínica Gipuzkoa, S.A., e Ibermática, S.A. Eta eskaera horri eskabidean jasotako dokumentazioa erantsi zitzaion.

Bigarrena.– 2012ko azaroaren 12ko idazki baten bidez, Fundazioen Erregistroak fundazioari eskatu zion aurkitutako akatsak zuzentzeko; 2013ko maiatzaren 20an sartu zen, telematikoki, Herri Administrazio eta Justizia Sailean fundazioak bidalitako dokumentazioa.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta 2012ko azaroaren 7an fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Laugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Fundazioaren helburua da zahartzaroaren eremuan jarduerak eta ekintzak sustatzea, bultzatzea eta egitea, adinekoen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzera bideratuko direnak, hain zuzen ere.

Helburu hori betetzeko, Fundazioak jarduera zehatzak burutuko ditu adierazitako eremu horretan; hauek dira, besteak beste, garrantzitsuenak eta behinenak:

– Ikerketa, garapen eta berrikuntzari dagozkionak.

– Azterketa eta analisiak, eta horien argitalpen eta zabalkundea.

– Eremu horretara zuzendutako enpresa-jarduera bultzatzea.

– Prestakuntza.

– Foroak, mintegiak, topaketak eta, oro har, jarduerak antolatzea, eta horietan parte hartzea.

– Aurreko jarduera horiek guztiak finantzatzea.

Bosgarrena.– Estatutuen 5. artikuluak dioenez, fundazioaren egoitza Donostian dago (Pinu Bidea 35), eta batik bat Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Seigarrena.– Hasierako dotazioa 120.000 eurokoa da.

Kopuru hori ordaindu dela –agiri bidez– jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Zazpigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, hala baitago aurreikusita fundazioaren estatutuetan.

Zortzigarrena.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

	Patronatukidea	Ordezkaria	Kargua
Patronatukide sortzailea	Grupo Matía Fundazioa	Gerardo Amunarriz Pérez jauna	
Patronatukide sortzailea	Iñaki San Sebastián jauna		
Patronatukide sortzailea	Euskaltel, S.A.	Ignacio Molinos Gallos jauna	Lehendakariordea
Patronatukide sortzailea	Luis Fernando Egurrola Martín jauna		Idazkaria
Patronatukide sortzailea	Policlínica Gipuzkoa Investigación y Desarrollo, S.L.	Ignacio Gallo Mezo	
Patronatukide sortzailea	Ibermatica, S.A.	Juan Carlos del Álamo Ciruelas jauna	
Izendapen askeko patronatukidea	José Antonio Aguirre Franco jauna		Lehendakaria

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala dago aurreikusita honako arau hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikulua; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikulua.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa.

Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplikatu beharreko gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta F-352 erregistro-zenbakiarekin, Donostiako (Gipuzkoa) «Fundación Polo para la Innovación en Envejecimiento» fundazioaren eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere (patronatu horren kideak zortzigarren aurrekarian agertzen dira), 2012ko uztailaren 25ean, Donostiako notario Miguel Gutierrez y García de los Ríosen aurrean egiletsitako eskritura publikoan (552 protokolo-zenbakia) xedatu bezala (eskritura hori zuzendu egin zen 2013ko maiatzaren 6an –notario beraren aurrean– egiletsitako eskritura publikoaren bidez; protokolo-zenbakia: 248).

Bigarrena.– Fundazio hori, zer helburu helburu dituen kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 1. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 22a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.